Erein argitaletxeak Anjel Lertxundi eta Inazio Mujika Iraola idazleen bina liburuekin gaztetxoentzako sail berri bat aurkeztu du.

✎ *Harri Fernándezen erreportajea* 📷 *Argazkia* ***Ruben Plaza***

Pikotxean irakurtzeko *ipuinak*

Makurturik edo kokoriko irakurtzeko bina ipuin ilustratu kaleratu dituzte Anjel Lertxundik eta Inazio Mujika Iraolak, Ereinek estreinakoz argitaratu duen Pikotxean sailean, hain zuzen ere. Donostiako Liburutegi Nagusian aurkeztu zituzten atzo goizean lau liburukiak, argitaletxeko editore Iñaki Aldekoarekin batera. Hasiera batean, zortzi-hamar urte bitarteko haurrentzat pentsatutako publikazio lerro berria da Pikotxean, baina idazle oriotarrak adinaren mugak puskatu nahi izan ditu, bere obrak "zortzi eta hil arteko irakurleentzat" balio izatea aldarrikatuta. Izan ere, Lertxundik idatzitako *Zakarruko* eta *Donostian elefanteak ikusi zirenekoa*, eta donostiarrak sortutako *Hans eta igela* eta *Ez apuratu* kontakizunek badute barnean helduek aise ulertuko duten mezurik. "Nire lagun idazleek edo gurasoek ere gustura irakurriko luketen zerbait idatzi nahi izan dut", esan zuen *Otto Petter*en autoreak, gaineratuz umeentzat idazten ari bada ere, ez dituela helduak ahazten. "Liburu hauetan jardun dugunean, jardun gara, besterik gabe, literatura egin nahian", azpimarratu nahi izan zuen.

Bere aldetik, haurra zela, "ezkutuan bezala, makurturik" irakurtzen zuela gogoratu zuen Mujika Iraolak. Jite horrek, halabeharrez, "tentsioa" dakar eta hori da, idazle eta editorearen ustez, literaturan behar dena: "Tentsioa da ipuin on batean abiapuntua eta orekaren maila ematen dituena". Ideia horretatik tiraka eratorri da Erein argitaletxearen sail berriaren izena: Pikotxean, umeek tentsioan irakurtzeko behar duten literatur eskaintza. "Gipuzkoan asko erabiltzen zen eta galtzen ari den hitza da", azpimarratu zuen Mujika Iraolak.

Atzoko aurkezpenera bi autoreak hurbildu baziren ere, lau ipuinak zortzi eskuren artean sortu dituzte. Maite Gurrutxuga izan da Mujika Iraolaren hitzak ilustratu dituena; Lertxundiren prosa imajinatzearen ardura, aldiz, oriotarraren ohiko kolaboratzaile batek hartu du, Antton Olariagak. "Irakurle onak dira", esan zuen Lertxundik. Haren ustez, irakurle on batek soilik bihur ditzake idazle baten esaldiak irudi. Pikotxean saila berriki jaio arren, 2021ean jarraipena izango du Mujika Iraola eta Lertxundiren beste bina ipuinekin.

"TXISPA"TIK TRAMARA Bi idazleek oso abiapuntu ezberdinetatik sortu dituzte obra hauek. Anjel Lertxundiren kasuan, bere garaian argitaratutako bi orrialdeko bi ipuin berrikusi ditu. *Zakarruko* liburukia *Gizon kabalen piurak* argitalpenean jasotako kontakizuna zen, eta Donostian elefanteak ikusi zirenekoa kontakizuna lehen aldiz *Tristeak kontsolatzeko makinan* publikatutako istorio batean oinarritzen da. Iraganeko obrak errebisatzeko garaian "arazo literarioak" izan dituela aitortu zuen *Ihes betea* nobelaren idazleak. Orain 28 urte, Lertxundi irakaslea zen eta garai horretan, gaurko egunarekin alderatuta, haur literaturari dagokionean "beste sintonia batean" zegoen, Gianni Rodari italiarrak idazten zituenetatik oso hurbil. "Oso urrun nago orain", adierazi zuen. Garaiko bi edo hiru folioetako "txispa" horretatik; orain, Ereinentzat "16 edo 18 orrialdetara ekarri" behar izan ditu eta, aitortu zuenez, "txispa batekin bakarrik ez da hori egiten; askoz gehiago". Txispa horretatik, tramara pasatzerako prozesua egin behar izan du oriotarrak, "pentsatuz nobela bat ere egin zitekeela" atalak landuz gero.

Zakarrukok "tipo egoskor" baten istorioa kontatzen du; hainbesteraino da egoskor, halako batean, buruz behera ibiltzea bururatuko zaio, jendearen ibiltzeko moduei kontra eginez. "Esango nuke literaturan auke-



Inazio Mujika Iraola eta Anjel Lertxundi, atzo Donostian, Erein argitaletxearen Pikotxean sail berriaren aurkezpenean.

Maite Gurrutxagak eta Antton Olariagak ilustratu dituzte Inazio Mujika Iraolaren eta Anjel Lertxundiren ipuinak

Lau liburu hauekin, oriotarrak eta donostiarrak helduak ahazten ez dituzten lau kontakizun idatzi nahi izan dituzte

rak infinituak direla, baina egoldenak bilatzen ahalegindu behar duzu", azaldu zuen. Zentzu honetan aitortu zuen ipuin honen trama garatzeko arazo nabarmenak izan zituela, *Gizon kabalaren piurak* liburuan agertzen den bertsioan protagonista egoskor horrek ez duelako garapen beharrik, txispa horretatik urruntzean, aldiz, pertsonaiaren bilakaera bat asmatzera behartuta egon zen. Hori lortzeko, kontrastean jarri ditu narratzaileak protagonistaren inguruan duen irudia eta Zakarruko berez nolakoa den.

Hasiera batean, *Donostian elefanteak ikusi zirenekoa* kontakizuna errazago moldatuko zuela pentsatu zuen Lertxundik, baina ez zen horrela izan. Ipuin horretan Donostiako alkatea udaletxeko balkoira irteten denean, hiria elefantez beterik ikusten du. "Ez du ezertxo ere ulertzen, onartzen duen arte bera ere elefante bat dela, bere hiritarrak bezalakoa dela eta handik ateratakoa dela bera ere", azaldu zuen. Trama garatzeko garaian, agintariek herritarrengandik nola aldentzen diren azaldu nahi izan du idazleak: "Noski, hori absurdoaren mugaraino eramanda dago".

"DEKALAJEA" "Oso serio hartzen dut haur literatura: oso serio hartu beharreko lana da", azaldu zuen Mujika Iraolak. Zentzu honetan, ipuingintza, baita helduei zuzendutakoa ere, poesiarekin konparatu zuen: "Oso ondo estudiatu daiteke egitura". Jendea bildu ezin daitekeen garai hauetan, Mujika Iraolak jendetzarekin erlazionaturikoak idatzi ditu, bilatutako zerbait ez zela argitu arren. Haurra zeneko beldur batetik atera du gaia: "Jendetzari beldurra nion, alde batetik galdu nintekeelako, eta bestetik jendetzatik ezin irtetearen ideiak beldurra ematen zidalako".

Ez apuratu, idazleak "bereziki maite" duen ipuina da. Amona baten eta bere bilobaren arteko erlazioa erakusten du, eta baita belaunaldien arteko "dekalajea" ere, bereziki, euskarari dagokionean: "Umeek *dilistak* jan dituztela esaten dutenean, amonak ez du ulertzen, berak *lentejak* bezala ezagutzen baititu. Gipuzkoan gure semealabek *sukarra* esaten dute, baina guk *kalentura* erabiltzen genuen". Puntu honetan, Mujika Iraolak argitu zuen "dekalaje" hori ez duela zerbait "problematiko bezala" planteatu nahi izan, hizkuntzek orokorrean "eboluzionatu" egiten baitute. Hau guztia da, liburuaren izenburuak laburbiltzen duena: "Ume batek ez du *Ez apuratu* esango, *kezkatu* edo *urduritu* erabiliko du. Gure amak, ordea, nire beldurrak aipatzen nituenean *Ez apuratu* esaten zidan".

Honi dagokionean, Lertxundik gaineratu zuen gustatuko litzaiokeela Mujika Iraolaren ipuin hau eskoletan irakurraraztea, haurrei erakusteko badaudela esateko beste modu batzuk. Hau da, zuzentasuna kontuan hartu behar dela, baina gero bakoitzaren erabaki kritikoa ere zilegi dela arauaren gainean.

Hans eta igelari ipuinean Hans da protagonista, Europako iparraldetik datorren musikaria eta kalez kale ibiltzen da bere igelarekin. Donostiako Konstituzio enparantzara iristean jendea bere inguruan biltzen hasten da, plaza osoa bete eta plazatik inor ez sartu ez atera geratu arte. ●

Chillida Leku y Aranzadi se alían en favor de la cultura

El museo y la sociedad de ciencias promoverán el valor patrimonial vasco

DONOSTIA – El Museo Chillida Leku y la Sociedad de Ciencias Aranzadi suscribieron ayer un convenio de colaboración para promover acciones que pongan en valor el patrimonio cultural y natural vasco.

Según informaron ayer ambas entidades en un comunicado, el acuerdo fue firmado el pasado lunes por la directora de Chillida Leku, Mireia Massagué, y el presidente de Aranzadi, Jokin Otamendi.

Con el objetivo de potenciar la divulgación de aspectos vinculados a la biodiversidad, la naturaleza y el patrimonio cultural, así como de sensibilizar a la población sobre su valor, el convenio abarca varios ámbitos de actuación conjunta.

Por un lado, establece "asesoramiento técnico" sobre la arboleda, fauna y sistemas autóctonos de Chillida Leku y, por otro, la promoción de actividades de sensibilización medioambiental y "cuidado del planeta".

El acuerdo contempla además la cooperación "de investigadores en ciencia o didáctica de la ciencia" de ambas entidades.

Los máximos responsables de la sociedad de ciencias donostiarra y el museo ubicado en Hernani recordaron la estrecha relación que Eduardo Chillida mantuvo con Aranzadi.

Además de presidir la entidad científica desde 1963 a 1967, y ser socio de ella desde 1961 hasta su muerte, en 2002, el escultor vivió bajo su presidencia "hitos" de la historia de Aranzadi como la gestión del descubrimiento de las pinturas rupestres de Altxerri o la renovación de la sala de Prehistoria del Museo de San Telmo.

Chillida "revolucionó" también la imagen de marca de la sociedad de ciencias creando su logotipo, que permanece inalterable desde su concepción y para cuyo diseño se inspiró en un grabado encontrado en un monolito del monte Jaizkibel alzado como un menhir. – *Efe*

Dos de las esculturas visitables en Chillida Leku. *Foto: Ruben Plaza*

Una muestra homenajea a la carpintería de ribera

El Aquarium de Donostia y el Itsasmuseum de Bilbao dan a conocer la policromía de los puertos vascos

DONOSTIA – El Aquarium de Donostia y el Itsasmuseum de Bilbao rinden tributo a la carpintería de ribera y su policromía en los puertos de pesca vascos con una exposición y un libro.

La iniciativa, titulada *Zura eta ura*, se presentó ayer y cuenta con el apoyo de las diputaciones de Gipuzkoa y Bizkaia, Laboral Kutxa y Baskegur.

Tanto la exposición itinerante como el libro están formados por fotografías de Konrado Mugertza, que dirige el proyecto, y textos de Leire Bilbao, Unai Elorriaga, Itxaro Borda, Kirmen Uribe, Anjel Lertxundi, Arantxa Urretabizkaia, Miren Agur Meabe y Jokin de Pedro, además del artista plástico Jesus Mari Lazkano, el profesor Humberto Astibia y Felipe Murelaga, carpintero de ribera de Lekeitio.

El proyecto "invita a reflexionar sobre la pérdida de identidad que han experimentado nuestros puertos de pesca como consecuencia de la sustitución de la madera por materiales sintéticos en la construcción de embarcaciones", además de homenajear a los últimos carpinteros de ribera vascos.

Este cambio de materiales ha supuesto una "pérdida de color e identidad y la desaparición del sector de la carpintería de ribera". "La desaparición de la policromía de los puertos está reduciendo la riqueza visual y la singularidad de los puertos pesqueros, lugares tan característicos y evocadores en distintos lugares del mundo", indicaron los museos. – *Efe*

La Oreja de Van Gogh iniciará su gira en Donostia

DONOSTIA – La Oreja de Van Gogh iniciará su gira de presentación de su último álbum, *Un susurro en la tormenta*, el 13 y 14 de marzo de 2021 en el Auditorio Kursaal de Donostia, cita a la que seguirán conciertos en Pamplona, Bilbao, Barcelona y Madrid.

En Pamplona actuarán los días 19 y 20 de marzo; en Bilbao, el 17 de mayo; en Barcelona, el 1 de mayo, y en Madrid, el 4 y 5 de mayo, explicó ayer en una nota la promotora musical Get In, que precisa que las entradas están disponibles desde ayer en www.laorejadevangogh.com.

El grupo donostiarra tuvo que retrasar su gira este año como consecuencia del coronavirus y finalmente la llevará a cabo en 2021. – *Efe/N.G.*